

KONTROL MOZIOA

MORLANSTARRAK LOKALA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko martxoaren 14an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko apirilean, Morlanstarrak Auzo Elkarteari Leire plazako udal-lokal baten erdia lagatu zion Udalak. Hain zuzen, Udalaren aspaldiko irizpide bati eutsiz: auzo bakoitzean, auzogintzarako udal-lokal bat egotea, gutxienez, lekuko herri mugimendu eta elkarteentzat. Geroztik, auzo elkarteak baita auzoko hainbat eragilek ere (auzo-konpostaren taldea, festetakoa...) ere erabiltzen dihardute, baina egoera prekarioan, lokala ez baitago egokituta oraindik ere, eta hotza eta hezetasuna dira nagusi.

Auzo elkarteek, irabazi eta gaitasun ekonomiko urria duten elkarteak direla ikusirik, egokitze lanetarako laguntza eskatu zioten Udalari (Loiolako Erriberetako eta Herrerako elkarteek kasuan gertatu den bezala), baina Udal Gobernuak proiektua egiteko udal arkitekto bat izendatzeko konpromisoa hartu baino ez zuen egin. 2016ko martxoaren 14ko batzordean zinegotzi-ordezkaritari gaiaz galdetuta, erantzun zitzaigun laguntzeko borondatea zegoela, baina hilabeteak pasatu diren arren, udal arkitektoa oraindik ere izendatzeke zegoela eta proiektua definitutakoan erabakiko zela ea udal-brigaden laguntza eskainiko zen eta “622.99.02 auzo elkarteek lokal berriak egokitzeko” kontu-sailetik laguntzarik bideratuko zen.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egokitzeko proiektua idazteko eta obrak gauzatzeko beharrezko laguntza eman dezala Morlanstarrak elkarteak Morlansko auzotarren erabilerarako udal lokal duina izan dezan.

Donostian, 2016eko martxoaren 17an

Axier Jaka Goikoetxea



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, I - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

EH Bildu udal taldeko zinegotzia